

**BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA SOZIETATEAREN ZINEMA UNITATEAREN BAITAN, ZINEMALDIETAN FILMAK HAUTATZEKO, EKOIZTEKO, TRATATZEKO ETA ARTXIBATZEKO, ETA HARK ANTOLATZEN DITUEN EMANALDIAK KOORDINATZEN LAGUNTZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA, PUBLIZITATEA DUEN PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ**

## 1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen helburua da VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA sozietatearen (aurrerantzean, VICTORIA EUGENIA) Zinema Unitatearen baitan, zinemaldietan filmak hautatzeko, ekoizteko, tratatzeko eta artxibatzeke, eta hark antolatzen dituen emanaldiak koordinatzen laguntzeko zerbitzua kontratatzea, agiri honetan eta ekonomia- eta administrazio-klausulen agirian jasotakoaren arabera.

Zehazkiago, VICTORIA EUGENIAREN gainbegiratupean eskainiko den zerbitzuak jarduera hauek barne hartzen ditu:

- DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK antolatzen dituen eta antolatzen laguntzen duen Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astean eta Giza Eskubideen Zinemaldian aurkezten diren nazioarteko filmen lehen hautaketa ikusi eta baloratzea.
- Kopiak prestatzeko zereginak, haiek hainbat ekitalditan emateko (fitxategi digitalekin lan egitea, formatuak bihurtzea, aretoetara egokitzea...). Era berean, aldaketa teknologikoak direla eta, film horietako askok Unitatearen barruan alde aurreko prestaketa-lana eskatzen dute, espazio bakoitzeko pertsonal teknikoak eman ahal izateko. Aurretiazko lan hori, hala badagokio, kontratistak egin beharko du.
- Nazioarteko ekoiztetxeekin eta banatzaileekin izapideak egitea, hautatutako materialen emanaldia negoziatzeko eta, hala badagokio, emanaldiaren nondik norakoak eta baldintzak negoziatzeko.
- Banatzaileek, ekoiztetxeek eta sortzaileek Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea eta Giza Eskubideen Zinemaldira bidalitako materialak eta VICTORIA EUGENIAREN Zinema Unitatera bidalitako edozein material artxibatzea eta dokumentatzea.
- Donostiako kultur etxeetan antolatzen diren zinema- eta bideo-emanaldiak koordinatzea eta antolatzea, kultur etxe bakoitzeko arduradunekin batera.
- Ekitaldiak ekoiztea eta bakoitzaren gauzatze-faseak kudeatzea, baita aurreko puntuan aipatutako ekitaldietara gonbidatutako pertsonen kudeaketaz arduratzea ere, betiere VICTORIA EUGENIAREN Zinema Unitateko lantaldeak ematen dituen jarraibideak kontuan hartuta.
- VICTORIA EUGENIAREN Zinema Unitatearen baitan, zinemaldietan filmak hautatu, ekoiztu, tratatu eta artxibatzearekin, eta hark antolatzen dituen emanaldiak koordinatzen laguntzarekin lotutako beste edozein.

## 2. LANEKO METODOLOGIA

Kontratuaren xede diren jarduerak erakunde kontratugilearen lokaletan (VICTORIA EUGENIAREN bulegoak eta jarduera espazioak, hala nola Victoria Eugenia antzokia bera eta Antzoki Zaharra) eta jarduerak garatzeko beharrezkoa den beste edozein espaziotan garatuko dira.

VICTORIA EUGENIAREN lokaletan (VICTORIA EUGENIAREN bulegoetan eta jarduera espazioetan) egin beharreko jarduerak gauzatzeko, hark berriarazko eta bereizitako eremu bat gaituko du. Zerbitzugintzarako informatika tresna eta beharrezkoak diren gainerako materialak esleipendunak ekarri beharko ditu. Intraneterako horren sarbidea mugatuta egongo da kudeaketako informatika sistemarekin zerbitzua egiteko beharrezkoa denerako, eta ez du posta elektronikoko korporatiborik izango.


Kontratistak bere proposamen teknikoan ezarritakoaren arabera egin behar ditu zerbitzuak, eta baldintza horri kalterik egin gabe, VICTORIA EUGENIAK, zuzendaritza, ikuskapena eta kontrola egiteko dituen eskuduntzak baliatuta, erreserbatuta du laneko metodologia aldatzeko eskumena, kasuan-kasuan sortzen diren beharren arabera, kontratistak izendatutako hizketakideari zuzenean jakinarazitako jarraibideen bitartez.

## 3. JARDUERA PLANAREN XEHETASUNA BARNE HARTZEN DUEN KRONOGRAMA

Kontratistak kronograma bat aurkeztu behar du, eta bertan zehaztu dagokion urtean egingo dituen jarduerak. Proposamen teknikoarekin batera aurkeztuko da kontratuaren lehen urteari dagozkion jardueren plana bilduko duen kronograma, **Ekonomia eta Administrazio Klausulen Agiriaren 12. klausulan** ezarritakoaren arabera. Gainera, kontratuaren bigarren urteari (luzapenik badago) dagozkion jardueren plana bilduko duen kronograma, aipatutako bigarren urtea hasi baino 15 egun lehenago aurkeztuko du esleipendunak, eta VICTORIA EUGENIAK onartu behar du.

Kontratistak bere proposamen teknikoan ezarritakoaren arabera eskaini behar ditu zerbitzuak, eta baldintza horri kalterik egin gabe, VICTORIA EUGENIAK, zuzendaritza, ikuskapena eta kontrola egiteko dituen eskuduntzak baliatuta, erreserbatuta du kontratistak proposatutako jarduera-planaren kronograma aldatzeko eskumena, kasuan-kasuan beharren arabera, kontratistak izendatutako hizketakideari zuzenean jakinarazitako jarraibideen bitartez.

Donostian, 2016ko ekainaren 14ean.

  
Jaime Otamendi Muñagorri  
Kudeatzailea